



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Arrigorriagako Udala

Udalbatzari aholkua emateko kontratazio mahaia

Arrigorriagako Udaleko Udalbatzak 2018ko martxoaren 20an egindako ohiko bilkuran osoko bilkurari aholkua emateko kontratazio mahaia eratzea onetsi zuen.

Bat etorriaz Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) 2.7 xedapen gehigarriarekin, lege bereko 326. artikuluekin eta maiatzaren 8ko 817/2009 EDaren 22. artikuluekin.

Lehenengoa: Onestea Arrigorriagako Udaleko Udalbatzaren Kontratazio Mahaiaren osaera, kontratazio-organo gisa jardun behar duenerako. Hau izango da:

— Presidentea: Administrazio Orokorreko Teknikari bat.

— Kideak:

- Idazkari Nagusia edo ordezkoa.
- Udal Kontu hartzailea edo ordezkoa.
- Kontratuaren saileko teknikari bat.

— Idazkaria: Udal administrari edo administrari laguntzaile bat.

Bigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profi-lean argitaratzea.

Hirugarrena: Udal sailei eta udal talde politikoei jakinaraztea.

Arrigorriagan, 2018ko martxoaren 26an.— Alkatea, Asier Albizua Manrique